**UDALAREN OSOKO BILKURA**

**2011ko URTARRILAREN 13an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA**

**Elkartutakoak**

**Alkatea**
Iñaki Zabala Bengoetxea, jauna

**Zinegotziak**
Gorka Garmendia Albarracín, jauna
Lourdes Beloki Goenaga, andrea
Mª Angeles Ostiza Mendia, andrea
Jose Mª Lete Azpiazu,jauna
Onintza Mendia Peinado, andrea
Jose Angel Lizarraga Zabaleta, jauna
Jose Luis Cantero Morcillo, jauna (P.S.E.-E.E:)
Amanda Pastor Tornero, andrea (P.S.E.-E.E)
Itziar Agirre Berriotxoa, andrea ( E.A.J)
Angel Errazu Garate, jauna ( E.A.J.)
Jose Andrés Martín Sánchez, jauna ( EB-Berdeak /Aralar

**Idazkaria**
Mª Jose Begiristain Zabalo andrea

**Kontuhartzailea**
Sara Arrizabalaga Arbulu andrea

**Azaldu ez dena**

Gemma Zabaleta Areta, andrea ( PSE-EE.)

Urretxun bi mila eta hamaikako urtarrilaren hamahiruan.

En Urretxu a trece de enero de dos mil once.

Arratsaldeko zazpirak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman ondoren, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gaiak eztabaidatzeari ekin diote.

**1.- Planeamenduko AASSen berrikuspena: Gipuzkoako Foru Aldundiari behin betiko onespenaren tramitazioa eteteko eskaera.**

Planeamenduko AASSen Berrikuspena-ren espedientea, ALDAKETAK barne, Udal honen eskumeneko tramiteak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zitzaion, behin betiko onespena emateko.

2010eko azaroaren 17an, Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordearen osoko bilkurak, "Urretxuko Planeamenduko AASSen Berrikuspena-ren Aldaketak barne zituen Agiri Bateratuari" buruzko erabaki-txostena eman zuen; txostena horretan baldintza batzuk ezartzen ziren behin betiko onespena eman ahal izateko. Txosten-erabaki honek derrigorrezko izaera du eta loteslea da.

Kontuan izanik Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onespena

Siendo las diecinueve horas se reune en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Abierto el acto por la Presidencia, y de orden de la misma se pasó a tratar de los asuntos relacionados en el Orden del Día.

**1.- Revisión NN.SS. de planeamiento:Solicitud suspensión de la tramitación de la aprobación definitiva a Diputación Foral de Gipuzkoa.**

El expediente de Revisión de las NN.SS de planeamiento, incluidas sus VARIACIONES, tras ser sometido a los trámites cuya competencia correspondía a este Ayuntamiento, fue remitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

Con fecha 17 de noviembre de 2010, el Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco adoptó acuerdo-informe sobre el "Documento Refundido introducidas las Variaciones de la Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu", en el que establecía una serie de condicionantes a la aprobación definitiva. Este informe-acuerdo tiene carácter preceptivo y vinculante.

Considerando que el plazo legalmente establecido para acordar la aprobación

erabakitzeko legez ezarrita dagoen epea urtarrilaren 30ean amaitzen dela.

definitiva por Diputación Foral de Gipuzkoa finaliza el próximo 30 de enero.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Lizarraga jaunak aditzera eman du, Planeamenduko Batzordean iragarri zuen bezela, abstentzioa izango dela bere jarrera, eta prozesu honetan ez dela erantzule sentitzen aipatu du. Esan du gainera, legealdia hasi eta laster AASSen Berrikuspenaren tramitazioa eten egin zela, behin betiko onartzeko fasean zegoelarik, eta hiru hilabete barru behin betiko dokumentu berria izango zela. Hala ere, hiru urte igaro dira, eta berriz ere etena egiteko eskaera batekin aurkitzen gara. Bere ustez honek hausnarketa bat eskatzen du.
Alkate jaunak esan dio baietz, benetan hiru urte eta erdi igaro direla, etena antzekoa dela, baina kontestua ez dela berdina.

Iniciado el turno de intervenciones, el sr.Lizarraga indica que, como ya anunció en la Comisión de Planeamiento, su postura será la abstención, señalando que no se siente responsable de este proceso. Sigue diciendo que, al poco de iniciarse la legislatura se suspendió la tramitación de la Revisión de NN.SS. ya en fase de aprobación definitiva, diciéndose que en tres meses se iba a disponer del nuevo documento definitivo. No obstante han pasado tres años y nos encontramos otra vez con una solicitud de suspensión. Cree que esto exige una reflexión.
El sr.alcalde le dice que, efectivamente han transcurrido tres años y medio, que la suspensión es parecida, pero que el contexto no es el mismo.

Cantero jaunak eskatu du hitza, eta PSE-EE bere taldearen oposizioa iragarri du; aditzera eman du benetan paralelotasuna dagoela bi etenaldien artean, eta baita ere bietan ematen direla indar politikorik ordezkatzen ez duten pertsonen botoak. Era berean, gogora ekarri du, AASSen Berrikuspena bideratu zen une hartan indar politiko bat zegoela, orain agintzen ari dena hain zuzen, eta orain eusten dituen jarrerekin inolako zerikusirik ez zuten jarrerak zituena; esate baterako, 400 etxebizitza zentzugabekeria zela, eta orain 1.200 proposatzen dute. AASSen berrikuspen hura etetea proposatu zenean, haren aldeko botoa eman

Pide la palabra el sr.Cantero, para anunciar la oposición de su grupo, PSE-EE, indicando que, efectivamente, hay un paralelismo entre ambas suspensiones, y que también en ambas se dan votos de personas que no representan a fuerza políticas. Recuerda, asimismo, que en aquel momento en el que se tramitó la Revisión de NN.SS había una fuerza política, que es la que ahora gobierna, que mantenía posturas que nada tienen que ver con las que ahora mantiene, como por ejemplo el que 400 viviendas era una aberración, y ahora plantea 1.200. Cuando se propuso la suspensión de aquella revisión de

zuten, hain zuzen ere kontsensua lortzeko asmoz, bere iritziz gobernu taldeak lideratu beharreko lana, baina oraingo honetan eman ez dena.

Gogora ekarri du, bere garaian iragarri zutela antzeko prozesua gerta zitekeela, eta hauteskunde bezperan gainera; eta maiatzetik aurrera zer gertatuko ote den galdetu du.
Aurkeztutako proposamenari dagokionez, aditzera eman du zuhurrena Berikuspena etetea litzatekeela, baina ez zuzenketarik txertatzeko, baizik eta hurrengo aginte taldeak aztertu ahal izan ditzan.

Alkate jaunak esan dio osoko bilkurak nahasten ari dela; legealdi hasierako une hartan talde sozialistaren bozeramaile zen pertsonak etena egiteko proposamenarekin bat zetorren jarrera zuela, eta aditzera eman du ez duela horrelako diskurtsoetan sartu nahi, eta beraz, amaitutzat ematen duela bide hori.

Cantero jaunak akta jasota utzi nahi du bere kexa, erespetu falta iruditzen zaiolako.

Agirre andreak eskatu du hitza, eta EAJ-PNVren botoa aldekoa eta oso kritikoa izango dela iragarri du, baina bakarrik erantzukizunagatik, izan ere bai baitakite tramitazioa eteten ez bada Arau Subsidiariorik ez edukitzea izango dela emaitza. Euren ustez garrantzitsua-goa da behar dena aldatu ezer ez edukitzea baino, eta 2007an ere horixe bera esan zuten.

NN.SS votaron a favor de la misma, pero para tratar de alcanzar el consenso, labor que, a su juicio, debe liderar el equipo de gobierno, y que en esta ocasión no se ha dado.
Recuerda que en su momento ya anunciaron que se podría repetir un proceso parecido, y también en vísperas de elecciones, preguntándose qué va a ocurrir a partir de mayo.
Respecto a la propuesta presentada manifiesta que lo más prudente sería que se suspendiera la Revisión, pero no para introducir correcciones, sino para que el futuro equipo de gobierno pudiera reestudiarlas

El sr.alcalde le dice que está confundiendo sesiones plenarias, que la persona que ostentaba la portavocía del grupo socialista en aquel momento de inicio de legislatura tenía posturas acordes con la propuesta de suspensión, y manifiesta que no quiere entrar en discursos de ese tipo, por lo que da por finalizado este derrotero.

El sr.Cantero quiere que conste en acta su queja por lo que entiende como una falta de respeto.

Pide la palabra la sra. Agirre para anunciar que el voto del PNV va a ser favorable y muy crítico, pero solamente por pura responsabilidad, ya que saben que si no se suspende la tramitación el resultado es no disponer de NN.SS. Entienden que es más importante cambiar lo necesario que no disponer de nada, y esto también lo dijeron en el año 2007.

Esan du gainera ez dutela nahi kontsensua duten proiektuak kaltetu eta horien garapenean kalterik eragin, eta beste batzuetan ere proposatu zutela egitasmo horiek aurrera eramatea eta alde batera utzi adostasunik ez dagoenean, aztertzen jarraitzeko. Horrez gain aditzera eman du prozesu hau eraman den modua azpimarratu nahi duela, izan ere bere iritzirako oso garestia izan da ekonomikoki: jaramonik egin ez zaion hiritar partaidetza, jada sarbiderik ez duen web gunea, eta gai garrantzitsuenean, hau da, Euskadiko hirigintza araudia betetzean, aholkurik eman ez duten aholkulariak.

Sigue diciendo que no quieren perjudicar proyectos que tienen un consenso y que pueden ver perjudicado su desarrollo, y ya en otras ocasiones propusieron llevar estos proyectos adelante y dejar a un lado aquellos en los que no lo hay, para seguir estudiándolos. Añade que quiere incidir en la forma en que se ha llevado este proceso porque, a su juicio, ha sido muy costoso económicamente: una participación ciudadana a la que no se ha hecho caso, una página web a la que ya no se puede acceder, y unos asesores que no han llegado a asesorar en lo principal, en el cumplimiento de la normativa urbanística de Euskadi.

Esan du gainera ematen duela Lurralde Antolaketarako Batzordetik datozen zuzenketa txiki batzuen aurrean gaudela, baina hori ez dela horrela, gauza sakonak baitira. Aditzera eman du prozesu guzti honen ondoren, une honetan dokumentua zuzendu beharrean gaudela, premia horrekin ados daudela, eta horregatik etenaren alde emango duela botoa; gai-zerrendako hurrengo puntuan azalduko du talde nazionalistak nola ikusten dituen egin beharreko zuzenketak.

Sigue diciendo que parece que estamos ante unas pequeñas correcciones derivadas de la Comisión de Ordenación del Territorio, y esto no es así porque son cuestiones de calado. Manifiesta que, tras todo este proceso, ahora nos encontramos ante una necesidad de corregir el documento, necesidad con la que están de acuerdo y es por ello por lo que van a votar a favor de la suspensión, exponiendo en el siguiente punto del orden del día cómo entiende el grupo nacionalista las correcciones a introducir.

Alkate jaunak erantzun dio AASS hauek indarrean dagoen legeriaren arabera egin direla; helburu bat lortzeko gastatu dela, Lurralde Antolaketarako Jarraibideek ezarritakoa interpretagarria dela, eta interpretazioa egiten duena Lurralde Antolaketarako Batzordea dela.

El sr.Alcalde responde diciendo que estas NN.SS se han elaborado atendiendo a la legislación aplicable y vigente, que se ha gastado para cumplir un objetivo, que lo dispuesto por las Directrices de Ordenación del Territorio es interpretable y quien lo interpreta es la Comisión de

Ordenación del Territorrio.

Lete jaunak eskatu du hitza, eta Cantero jaunari erantzuna emanez adierazi du EA alderdiko zerrendan aurkeztu zela independiente gisa; gogora ekarri dio 2007. urtean AASSen Berrikuspenaren behin betiko onespenaren tramitazioa etenda geratu zenean, Urretxuko talde sozialistako bozeramaile Zabaleta andrea haren alde agertu zela; eta gogora ekarri dio baita ere orduan esan zutela lan egiteko prest zeudela, eta horixe egin dutela hain zuzen ere; alde horretatik zailtasun asko izan dituzten arren, gune industrial batzuk proposatu dituzte, baina COTPV batzordeak aurkako txostena eman du. Azken finean, Urretxuk AASS izan ditzan ahalegindu dira, indarrean dagoen araudiak agindutakoa beteko duten arauak, eta alde horretatik proposatutako etenaren aldeko botoa emango dute, behar dena zuzentzeko eta modu horretan AASSak edukitzeko legealdi honetan.

Pide la palabra el sr.Lete, y en respuesta al sr. Cantero le dice que Jose Mª Lete se presentó como independiente en la lista de EA; le recuerda que cuando en el año 2007 se suspendió la tramitación de la aprobación definitiva de la Revisión de NN.SS, la portavoz del grupo socialista de Urretxu, sra. Zabaleta se mostró a favor de la misma; y le recuerda también que entonces dijeron que estaban dispuestos a trabajar y que es lo que han hecho, a pesar de tener muchas dificultades en este sentido propusieron unas zonas industriales que la COTPV ha informado desfavorablemente. En definitiva, han intentado que Urretxu disponga de NN.SS que por supuesto cumplan con todo lo dispuesto por la normativa vigente, y en ese sentido votarán a favor de la suspensión propuesta, para corregir lo necesario y así poder disponer de unas NN.SS en esta legislatura.

Cantero jaunak hitza eskatu eta galdetu du ea ezin duten politikoki kritikatu, eta esan du gainera beraiei ere, PSEko zinegotziei, herritarrek helarazten eta aipatzen dizkietela gaiak, gainontzeko udal taldeei bezelaxe.

El sr. Cantero pide la palabra para preguntar si no pueden criticar politícamente, y para decir que a ellos, concejales del PSE, los ciudadanos también les trasladan y comentan asuntos, al igual que al resto de fuerzas políticas municipales.

Pastor andreak hitza eskatu eta aktan jasotzea eskatu du hitz egiteko askatasuna mozten ari zaiela.

La sra. Pastor pide la palabra para pedir que conste en acta que se les está cortando la libertad de hablar.

Eztabaida amaituta, botoetara eraman da gaia; aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza,

Finalizado el debate, se somete el asunto a votación, y con los votos a

Agirre (EAJ-PNV), Errazu (EAJ-PNV), Lete, Mendia eta Martin (EB-Berdeak/Aralar) zinegotziek (9 boto); aurkako botoa eman dute Cantero (PSE) eta Pastor (PSE) zinegotziek (2 boto), eta Lizarraga jauna abstenitu egin da; horrenbestez honako hau erabaki da:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketarako Departamentuari eskatu etenaldia egin dezan "Urretxuko Planeamenduko AASSen Berrikuspenaren, aldaketak txertatuta, Dokumentu Bateratuan", hain zuzen ere bertan txertatzeko Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordearen erabaki-txostenetik ateratzen diren zuzenketa funtsezkoenak.

favor del sr.alcalde,y de los ediles sr@s Garmendia, Beloki, Ostiza, Agirre (PNV), Errazu (PNV), Lete, Mendia y Martín (EB-Berdeak/Aralar), {9 votos}; los votos en contra de los concejales Cantero (PSE) y Pastor (PSE), {2 votos}, y la abstención del sr.Lizarraga, se acuerda:

Solicitar al Departamento de Ordenación del Territorio de Diputación Foral de Gipuzkoa, la suspensión de la tramitación de la aprobación definitiva del "Documento Refundido introducidas las Variaciones de la Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu", al objeto de introducir en el mismo las Correciones más sustanciales que resultan del acuerdo-informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco.

**2.- Urretxuko AASSen Berrikuspenaren behin-behineko onespeneko dokumentuari zuzenketak, 2010eko azaroaren 17ko Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordearen osoko bilkuratik etorritakoak: jendaurrean jartzea.**

Planeamenduko AASSen Berrikuspena-ren espedientea, ALDAKETAK barne, Udal honen eskumeneko tramiteak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zitzaion, behin betiko onespena emateko.

2010eko azaroaren 17an, Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordearen osoko bilkurak, "Urretxuko

**2.- Correcciones al documento de aprobación provisional de la Revisión de NN.SS de Urretxu, derivadas del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de fecha 17 de noviembre de 2010: sometimiento a información pública**.

El expediente de Revisión de las NN.SS de planeamiento, incluidas sus VARIACIONES, tras ser sometido a los trámites cuya competencia correspondía a este Ayuntamiento, fue remitido a la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación definitiva.

Con fecha 17 de noviembre de 2010, el Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco adoptó

Planeamenduko AASSen Berrikuspena-ren Aldaketak barne zituen Agiri Bateratuari" buruzko erabaki-txostena eman zuen; txostena horretan baldintza batzuk ezartzen ziren behin betiko onespena eman ahal izateko. Txosten-erabaki honek derrigorrezko izaera du eta loteslea da. Hauetxek dira zuzendu beharrekoak:

Aurrekoa kontuan izanik, Injelanek, AASSak idatzi dituen taldeak, zuzenketa agiria prestatu du, hain zuzen ere 2010eko azaroaren 17ko osoko bilkuran Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordeak Urretxuko AASSen Berikuspenaren behin-behineko onespen dokumentuari egindako zuzenken agiria, eta bertan jasota daude funtsezko aldaketak, esaterako etxebizitza kopuruaren egokitzapena 771 etxebizitzetara, Deskargako industriagunea eta Erratzuko guneko lur erretserba desagertzea, eta era berean, Irimoko gunean erabilera industrialari eta hirugarren sektoreari eman lehentasuna.

Zinegotziek hitz egiteko txanda irekita, Lizarraga jaunak hartu du hitza, eta aditzera eman du egoera honek hausnarketa merezi duela; bere ustez, politikoen porrota islatzen da hemen, bera ere tartean delarik. Gogora ekarri du 2007. urtean esaten zela ordungo hirigintz dokumentuak gutxieneko kontsensua zuela, eta horrelaxe zen; baina une honetan, bere iritziz, gauza bera da, eta dokumentazioa bezperan jasota zaila da kontsensua lortzea.

acuerdo-informe sobre el "Documento Refundido introducidas las Variaciones de la Revisión de NN.SS de planeamiento de Urretxu", en el que establecía una serie de condicionantes a la aprobación definitiva. Este informe-acuerdo tiene carácter preceptivo y vinculante. Los aspectos a corregir son:

Habida cuenta lo anterior por Injelan, equipo redactor de las NN.SS., se ha elaborado el documento de Correcciones al documento de aprobación provisional de la Revisión de NN.SS de Urretxu derivadas del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de fecha 17 de noviembre de 2010, en el se recogen las modificaciones que tienen caracter sustancial, tales como la adecuación del número de viviendas a 771, la desaparición del área industrial de Deskarga y de la reserva de suelo de la zona de Erratzu, así como establecer en Irimo el uso prioriotario industrial y terciario.

Iniciado el turno de intervenciones, pide la palabra ael sr.Lizarraga, para decir que la situación merece una reflexión, y entiende que lo que se está reflejando es un fracaso de los políticos, entre los que también se encuentra. Recuerda que en el año 2007 se hablaba de que el documentos urbanístico de entonces disponía de un consenso mínimo, y así era, pero en este momento, a su juicio, es lo mismo, aunque recibiendo la documentación la víspera es difícil llegar al consenso.

Esan du gainera Planeamenduko Batzordea iragarri zuela proposamenaren alderdi positiboak ikusten saiatuko zela. Bere ustez, dokumentuaren abiapuntuan etxebizitza kopuru okerra zegoen; araua ondo aplikatzen zen, baina harrotze-koefiziente okerrarekin, eta hortik dator etxebizitza kopuruaren zuzenketa, orain 771n finkatu dena. Kopuru hori ez zaio gehiegizkoa iruditzen. Hala ere, biztanle hazkunde bat suposatzen du, era berean ekipamenduetan igoera eskatzen duena, eta baita ere enplegu eskaintzan, bestela ez baitu jasangarri ikusten.

Esan du gainera, bere alderdi politikotik kontsensua handitzearen alde daudela, eta denbora gutxi izan arren, uste du proposatutako AASSak hobetu daitezkeela; esaterako, bide azpiegituretan, uste baitu bide-sare berri bat planteatu behar dela, ondoko herritik independiente egingo gaituena.

Irimoko guneari dagokionez, uste du soluzio jasangarria eman behar zaiola, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik. Ez dute gaizki ikusten zirriborroan aurkeztutako proposamena, beti ere fitxa zehatzak ezagutu bitartean. Nolanahi ere, bere iritzirako, jarduera ekonomikoa sortzeari dagokionez, porrota izan da. Gogora ekarri du Erratzuko lurraren erretserba, COTPV delakoak aurka informatu duena, aurreko AASSen Berrikuspenean organo berak aldeko txostena eman zuela, eta horregatik uste du irizpideak aldatu egin direla.

Hezkuntza ekipamenduei dagokienez

Sigue diciendo que en la Comisión de Planeamiento ya anunció que trataría de ver los aspectos positivos de la propuesta. El documento partía, a su juicio, de un número erróneo de viviendas, se aplicaba bien la norma pero con un coeficiente de esponjamiento equivocado, de ahí la corrección en el número de viviendas, que ahora se fija en 771. Este número no le parece excesivo. No obstante supone un incremento poblacional que exige un crecimiento paralelo en equipamientos, y también en oferta de empleo, porque de lo contrario no lo ve sostenible.

Sigue diciendo que desde su fuerza política están a favor de aumentar el consenso y aunque se dispone de poco tiempo, cree que las NN.SS propuestas son mejorables, por ejemplo en infraestructuras viarias, ya que cree que hay que plantear un nuevo viario que nos haga independientes del municipio vecino.

Respecto a la zona de Irimo entiende que hay que darle una solución sostenible económica y medioambientalmente. No ven mal la propuesta presentada en boceto a expensas de conocer las fichas pormenorizadas. No obstante cree que en el aspecto de crear actividad económica se ha fracasado. Recuerda que la reserva de suelo de Erratzu ahora informada desfavorablemente por la COTPV, en el anterior documento de Revisión de NN.SS fue informado favorablemente por el mismo órgano, por lo que entiende que los criterios de este han cambiado.

Respecto a los equipamientos

uste du bere garaian galdu zen aukerak ez duela atzera bueltarik, baina konponbidea behar duen gaia da. Kontuan izan behar da Urretxuk bi ikastetxe hartzen dituela, bi herriei zerbitzu ematen diena, baina Urretxutik kudeatu behar direnak eta urbanistikoki arautu behar direnak. Planteatzen den etxebizitza kopuruaren igoerak, eta Zumarragan planteatu litekeenak, hezkuntza azpiegituren igoera bat eskatzen du, eta hortaz dokumentuak Lizeorako proposatzen duenaren aurka daude, hori hezkuntzarako dela uste baitute.

Planteatzen diren aparkalekuak egokitzat jotzen dira, herriko merkataritzari laguntzen diotelako; baina hala ere, alderdi positibo horiek ikusi arren, Planeamendu Batzordean hartutako konpromisoaren arabera, aurka egingo du, dokumentazio tekniko zehaztua falta delako.

Alkate jaunak gaiari heltzea eskatu die, eta gogora ekarri die une honetan proposatzen ari dena COTPV batzordeak egindako txostenaren ondoriozko zuzenketak jendaurrean jartzea dela; bere ustez hau ez da momentua hobekuntzak sartzeko, beharrezkoa zuzentzeko baizik.

Martin zinegotzi jaunak eskatu du hitza eta esan du proposamenaren aldeko botoa emango duela. Aditzera eman du aitortu egin behar duela COTPV batzordeak egindako txostenak ezbeharra ekarri duela. Esan du gainera AASS hauetako aspektu batzuekin ez dagoela ados, baina bere oniritzia eman

educativos cree que la oportunidad perdida en su día ya no tiene vuelta atrás, pero es un asunto al que hay que darle solución. Hay que tener en cuenta que Urretxu acoge a dos centros educativos que dan servicio a los dos municipios, pero que tienen gestionarse y normarse urbanísticamente desde Urretxu  El aumento de vivienda que se plantea, así como el que se pueda plantear en Zumarraga, hace necesario un aumento en infraestructuras educativas, por lo que están en contra de lo que el documento plantea en el Lizeo, dado que entienden este como educacional.

Los aparcamientos que se plantean se entienden adecuados porque ayudan al comercio urbano, pero no obstante, a pesar de ver estos aspectos positivos, tal y como se comprometió en la Comisión de Planeamiento, va a oponerse porque falta documentación técnica pormenorizada.

El sr.alcalde les pide ceñirse al asunto y les recuerda que lo que en este momento se está proponiendo es someter a información pública las correcciones derivadas del informe de la COTPV, cree que este no es el momento para introducir mejoras sino para corregir lo necesario.

Pide la palabra el edil sr. Martín para decir que votará a favor de la propuesta. Manifiesta que tiene que reconocer que el informe emitido por la COTPV ha supuesto un revés. Sigue diciendo que hay aspectos en estas NN.SS con los que no está de acuerdo, pero ha dado su visto bueno a las

du herria ez delako goruntz hazi, eta Aparicio auzoko bizilagunak erdialdera gerturatzea ahalbidetzen delako. Une honetan, proposatu diren zuzenketekin, gorabehera horiek mantendu egiten dira, eta arrazoi horregatik emango du aldeko botoa.

mismas porque el muncipio no crece hacia arriba, y porque se posibilita el acercamiento de los vecinos de Aparizio auzoa al centro. En este momento, con las correcciones propuestas, estas circunstancias se mantienen, y es por esto por lo que va a votar a favor.

Cantero jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du euren ustez txosten hau bere egunean onartu zen guztiarekiko zuzenketa izan dela. Batzarraldi honetan beste batzuk esan duten bezela, porrotaren aurrean gaude; guztiona izan dela pentsatu daiteke, baina bere iritziz neurri txikiagoan haren aldeko botoa eman ez dutenena. Talde sozialistan lehengo bozeramaile izan zenaren jarrerarekiko egin den aipamenari dagokionez, esan du ez duela balio haien aipamena egitea, talde politiko gisa jokatu izan dutelako beti, baina seguru dago une honetan hemen balego bat etorriko litzatekeela une honetan talde sozialista agertzen ari denarekin. Jarraian aditzera eman du AASS hauek ez dutela etorkizunerako itxurarik, eta PSE alderdiak hurrengo legealdian AASS hauek aldatzen ahaleginduko da, eta espero du hurrengo osoko bilkuretan horrelako traturik ez izatea.

Pide la palabra el sr. Cantero para decir que entienden que este informe ha supuesto una enmienda a la totalidad de lo que se aprobó en su día. Como ya han dicho otros en esta sesión, estamos ante la expresión de un fracaso, que se puede pensar que ha sido de todos, pero entiende que en menor medida de los que no han votado a favor de ello. Respecto a las alusiones efectuadas a la postura de la anterior portavoz del grupo socialista, expone que no vale hacer alusión a las mismas porque siempre han actuado como grupo político, pero está seguro que si en este momento estuviera aquí compartiría  lo que en este momento está exponiendo el grupo socialista. Sigue diciendo que estas NN.SS no tiene viso de futuro, y el PSE en la próxima legislatura intentará que estas NN.SS se cambien y espera que en futuros Plenos no se le trate igual.

Agirre andreak eskatu du hitza eta aditzera eman du gaiari heltzen saiatuko dela, baina beharrezko iruditzen zaio azalpen bat. Esan du egia dela dokumentu bat jendaurrean jartzea dela kontua, EAJ alderdiaren adostasuna ez duen agiria, eta gainera epe batzuetara iristeko ulertzen du gaia. Informazio falta

Pide la palabra la sra. Agirre quien manifiesta que intentará ceñirse al asunto, pero cree necesaria una explicación. Dice que es cierto que se trata de someter al público un documento con el que el PNV no está de acuerdo, además entiende el asunto para tratar de llegar a unos plazos.

salatu du, izan ere aldatzen diren 15 arearen laburpena batzarra baino 48 ordu lehenago eskuratuta, eta fitxa urbanistikoak aurkeztu gabe, ezin da eskatu ezagutzen ez den zerbait jendaurrean jartzeko erabakia hartzea; alde horretatik, jokaera hori zinegotzien eskubideekiko errespetu fala iruditzen zaio. Esan du gainera kexa hori batzorde informatiboan azaldu eta gero, fitxa urbanistikoak eskuratzen joan dela, baina guztiak aztertzeko denborarik gabe; ikusi duten gauza positibo bakarra etxebizitza kopuruaren murriztapena izan da. Era berean, positibotzat jotzen du Ikastolako egitasmoa mantendu egiten dela; ikusten du baita ere ados ez dauden beste hainbat gauza ere mantendu egiten direla, esate baterako ondorengo hauek:

- Irimon 300 etxebizitza. Gai honen inguruan aditzera eman du COTPV batzordeak ez duela inolako portzentajerik ezartzen, eta beraz jakin egin nahi du Udal honek noiz inplikatu behar duen jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren sorreran.
- Lizeoko etxebizitza libreak; euren ustez gune hau dentsifikatuta dagoelako, eta gainera oker berean erortzen da, hau da babeseko etxebizitza area honetatik Irimora eramatea.

Esan du gainera dokumentu berri honetan badagoela aspektu bat okerrera egin duena: lehen kezka zegoen merkataritzaren erabileraren zehaztasun falta zela eta; orain ez da ezer zehazten.

Martin jaunari esan dio EAJ ados dagoela Aparicio auzoaren

Denuncia falta de información dado que facilitando un resumen de 15 áreas que se modifican, 48 horas antes de la sesión, y sin aportar las fichas urbanísticas correspondientes , no se puede pretender que se acuerde someter a información pública algo que se desconoce, entendiendo este actuar como una falta de respeto hacia los derechos de los concejales. Añade que después de exponer esta queja en la Comisión informativa ha ido recibiendo las fichas urbanísticas sin haber dispuesto de tiempo para examinarlas en su totalidad, lo único positivo que han visto es la reducción del número de viviendas. También entiende positivo el que se mantiene el proyecto de la Ikastola, y también ve que se mantienen otra serie de cuestiones con las que no están de acuerdo, tales como:

- 300 viviendas en Irimo. Sobre este particular, dice que la COTPV no establece porcentaje alguno, por lo que quiere saber cuándo se va a implicar este Ayuntamiento en la creación de suelo para actividades económicas.
- las viviendas libres del Lizeo, porque consideran que esta zona está densificada, además de volver a caer en el mismo error, como es el transferir la vivienda protegida de esta área a Irimo.

Añade que en este nuevo documento hay también un aspecto que empeora: antes preocupaba la falta de concreción respecto al uso de comercio, ahora no se define nada.

Al Sr. Martín le dice que el PNV también está de acuerdo con el traslado de Aparizio auzoa, y

trasladoarekin, eta Kamineroen gunean planteatu zuten hori, baina orain Kamineroen gunean egiten den etxebizitza murrizketarekin, uste du ez dela posible.
Esan du gainera, proposatzen diren zuzenketak sakonak direla, eta uste du ez dagoela astirik legealdi amaierara iritsi ahal izateko. EAJ alderdiak ez du inongo asmorik prozesua hutsera itzultzeko, eta aukera baldin badute, area jakin batzuen etenaldia eskatuko dute, beraien arauak ez diren arren.

Amaitzeko, aditzera eman du hiru urte hauetan proposamenak egiteko aukera izan dela esan zaiela; horren harira azaldu nahi du EAJ alderdiak aurkeztu dituen proposamen guztietatik bat bakarra ez dutela kontuan izan, eta beraz, kontsensua bilatzearena berak ez du horrela ikusten.

Alkate jaunak Agirre andreari esan dio kontsensuetarako garaia bukatu dela, eta aurreko legealdian mantendu duen diskurtsoa eta legealdi honetan izan duena berdina dela, nahiz eta aurreko legealdian gobernu taldean zegoen.

Martin jaunak aipatu duen atzera pausoari dagokionez, aipatu du hala baldin bada etxebizitza kopuruan izango litzatekeela, beharbada esplikatzen jakin izan ez dutelako eta irizpide politikoengatik izan delako. Esan du gainera ez dutela pentsatzen 771 etxebizitza eraikiko direnik, baizik eta horretarako aukera dagoela, eta baita ere 1.200 etxebizitzatarako, lurzoru ez urbanizagarria kolonizatu gabe. Alde horretatik argi utzi nahi du 400

plantearon este en la zona de Camineros, pero ahora con la reducción de viviendas en Camineros cree que no es posible.
Sigue diciendo que con el calado que tienen las correcciones que se plantean, cree que no va a haber tiempo para poder llegar al final de legislatura. El PNV no tiene ninguna intención de que el proceso vuelva al punto cero, si tienen la oportunidad solicitarán la suspensión de áreas concretas, a pesar de que no sean sus normas.
Para finalizar manifiesta que se ha dicho que durante estos tres años se han podido hacer propuestas, a lo cual quiere exponer que de todas las presentadas por el PNV ninguna se ha tenido en cuenta, por lo que la búsqueda de consenso no la entiende como tal.

El sr.alcalde dice a la sra. Agirre que el tiempo para consensos se ha acabado, y que el discurso mantenido en la anterior legislatura y el que ha mantenido en esta, es el mismo, aun cuando en la anterior legislatura estaba en el equipo de gobierno.
Respecto al “revés” al que ha hecho referencia el sr.Martín, indica que de haberlo lo sería en el número de viviendas, porque pueda ser que no hayan sabido explicarlo y por tratarse de criterios políticos. Sigue diciendo que no son ilusos para pensar que se van a ejecutar 771 viviendas, sino que existe posibilidad para eso y también para 1.200 viviendas sin colonizar suelo no urbanizable. A este respecto aclara que la razón de estar en contra

etxebizitzaren aukeraren aurka egotearen arrazoia dela haien planteamendua lehen aipatutako lurzoru mota kolonizatuz egiten zelako. Lurzoru industrialari dagokionez, esan du Irimokoa ez dela; degradatutako eremua dela; azken hogeita bost urteotan ez jarduerarik sortu bertan, eta ez hori bakarrik, gainera despopulatu egin da, ez da lehiakorra. Eta horixe da COTPVren txostenean aldatu dena; hortaz, ez du ulertzen "atzera pausua" aipatzea.
Deskargari dagokionez, txosten honekin udal autonomia gutxitzen dela uste du. Esan du gainera, Lurralde Plan Partzialak "garapenik gabeko korridore" gisa ezartzen duela Deskarga, baina ez da ahaztu behar Lurralde Plana noizkoa den. Babeseko etxebizitzari dagokionez esan du hainbat eremutan planteatzen direla, baina Lizeokoak beste eremu desberdin batean planteatzen direla, izan ere beharrezkoago ikusten dute 3.000 m2 dotazioetarako lortzea.

Lete jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du bakar-bakarrik eskerrak eman nahi dizkie dokumentu hau gauzatzeko lan egin duten guztiei.

Agirre andreak eskatu du berriz ere hitza; aipatua izan denez, esan du bere jarrera berdina dela orain eta duela lau urte, berea ez baita aldatu, baina, aldiz, oraingo gobernu talderena bai aldatu da. Gogora ekarri du gaur egungo gobernu taldeak 2006an zuen irizpidea lurzoru ez urbanizagarria ez hartzea zela, baina baita ere bazen herria ez dentsifikatzea, eta orain 1.200 etxebizitza planteatu dira; galdetu du ea hori ez den

de la posibilidad de 400 viviendas radica en que las mismas se planteaban colonizando el referido tipo de suelo. En cuanto al suelo industrial, indica que Irimo no lo es, es una zona degradada en la que en los últimos veinticinco años no sólo no se genera actividadad sino que se ha despoblado, no es competitivo. Y esto es lo que se ha cambiado en el informe de la COTPV, por lo que no entiende esa alusión a "revés".
Por lo que respecta a Deskarga, siente que con el informe se menoscaba la autonomía municipal. Añade que el Plan Territorial Parcial establece Deskarga como "corredor sin desarrollo", pero no hay que olvidar de cuándo es el Plan Territorial. En relación a la vivienda protegida dice que se plantean en diversas áreas, pero efectivamente, las del Lizeo sí se plantean en otra área distinta, dado que consdieran más necesario obtener 3.000 m2 para dotaciones.

Pide la palabra el sr.Lete quien dice que solamente quiere agradecer a todos los que han trabajado para hacer posible este documento.

Pide la palabra nuevamente la sra. Agirre, quien por alusiones, dice que su postura hoy y hace cuatro años, es la misma, pero porque no ha cambiado, habiéndose modificado por el contrario la del actual equipo de gobierno. Recuerda que el criterio del actual equipo de gobierno en el 2006 era no invadir suelo no urbanizable, pero también lo era no desinficar el municipio, y ahora se han planteado

dentsitatea. Irimo degradatua dela begibistakoa da, baina urratsak eman behar dira birsortzeko; eta COTPV batzordearen txostenari dagokionez, bere ustez, ez daki beste udalerririk ote dagoen horren gaizki egin duela esan diotenik.

1.200 viviendas, pregunta si esto no es densidad. Que Irimo está degradado es evidente, pero hay que dar pasos para regenerarlo, y respecto al informe de la COTPV, a su juicio, no sabe si habrá algún otro municipio al que la hayan dicho que ha hecho tan mal.

Lizarraga jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du oraindik ez dela berandu, alegazio prozesu bat irekitzen dela, eta hori konpondu egin beharko dela. Berriz ere dio jarduera ekonomikorik gabe eta enplegurik gabe ez dagoela etorkizunik, ezta ibilbide luzerik ere. Aditzera eman du oraindik egin litekeela zerbait gehiago, baina horretarako ahalegin haundia egin behar dela.

Pide la palabra el sr.Lizarra y manifiesta que todavía no es tarde, que se abre un proceso de alegaciones que habrá que resolver. Reitera que sin actividad económica y sin empleo, no hay futuro ni largo recorrido. Manifiesta que todavía se puede hacer algo más pero para ello hay que hacer esfuerzos importantes.

Martin jaunak eskatu du hitza berriro, eta Lizarraga jaunari esan dio badakitela lurzoru industriala behar dela, eta baita EB-Berdeak/Aralar taldeak non nahiko zukeen, baina badakite baita ere zergatik dauden AASS hauen alde.

El sr.Martín pide nuevamente la palabra y dice al sr.Lizarraga que ya saben que hace falta suelo industrial y también dónde lo querría EB-Berdeak/Aralar, pero también saben por qué están a favor de estas NN.SS.

Agirre andreak hartu du hitza berriz ere eta argitu du EAJ/PNVk 2006an aurka bozkatu zuela eta 2007an abstenitu egin zela, eta orain planteatzen duen gauza bera planteatu zuten, batzen dituena aprobetxatu hutsetik ez hasteko.

Nuevamente interviene la sra. Agirre para aclarar que el PNV en 2006 votó en contra y en el 2007 se abstuvo, y plantearon lo mismo que ahora plantea, aprovechar lo que les une para no empezar de cero.

Errazu jaunak eskatu du hitza eta aditzera eman du EAJ/PNVk ekarpenak egin dituela, kontuan izan ez direnak, eta berriro egingo balituzte ere gauza bera gertatuko litzatekeela, Zabala jauna alkate dagoen bitartean.

Pide la palabra el sr.Errazu, quien dice que el PNV ha hecho aportaciones que no han sido tenidas en cuenta, y que si volvieran a hacerlas pasaría exactamente lo mismo en tanto esté el sr.Zabala como alcalde.

Alkate jaunak azaldu du EAJ/PNVk

El sr.alcalde expone que si no se han

aurkeztutako proposamenak kontuan eduki ez badira ez dituztelako ontzat ikusi izan dela, eta sentitzen du ez badute hori onartzen.

Zinegotzien txandari amaiera emanda, eta gaia botoetara eramanda, baiezko botoa eman dute alkate jaunak eta Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia eta Martin (EB-Berdeak/Aralar) zinegotziek (7 boto), eta aldiz, Cantero (PSE), Pastor (PSE), Agirre (EAJ/PNV), Errazu (EAJ/PNV) eta Lizarraga zinegotziek (5 boto) aurkakoa eman dute; horrenbestez, hauxe erabaki da:

Jendaurrean azaldu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zabalkunde haundieneko egunkarietan argitara emanda, hilabeteko epean, Urretxuko AASSen Barrikuspenaren behin-behineko dokumentuari egindako zuzenketak, 2010eko azaroaren 17an Euskadiko Lurralde Antolaketarako Batzordearen Osoko Bilkuraren ondorioz egindakoak.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarraldiari, akta honen hasieran zehaztutako egunean iluntzeko bederatziak eta bost minutu direnean, eta nik, Idazkariak, guzti horren fede ematen dut.

tenido en cuenta las propuestas presentadas por el PNV es porque no las han entendido óptimas y siente que no sepan aceptarlo.

Finalizado el turno de intervenciones, y sometido al asunto a votación, con los votos a favor del sr.alcalde y de los concejales sr@s Garmendia, Beloki, Ostiza, Lete, Mendia y Martín (EB-Berdeak/Aralar), {7 votos}, y los votos en contra de los ediles Cantero (PSE), Pastor (PSE), Agirre (PNV), Errazu (PNV), y Lizarraga, {5 votos}, se acuerda:

Someter a información pública, mediante su publicación el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en los diarios de mayor difusión, por el plazo de 1 mes, las Correcciones al documento de aprobación provisional de la Revisión de NN.SS de Urretxu derivadas del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco de fecha 17 de noviembre de 2010.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la presente sesión, siendo las veintiuna horas cinco minutos del día que encabeza la presente acta, de todo lo cual doy fe.